



# ANIXIAREN LIBURUA

*Seve Calleja*

*Aranzazu Callejaren marrazkiak*

**Desclée De Brouwer**



**A**nixiaren etxean liburuz  
beteriko gela bat zegoen.  
Beste zenbait gauza ere  
bazeuden, besteak beste:



sukalde bat,  
bi anaia nagusi,  
hiru logela,  
Alexandro izeneko aita,  
geranioz jantzitako  
terraza,  
denok *amatxo* deitzen  
genion ama bat...



Baina hori guzti hori  
aspalditik zegoen han;  
ez ordea liburuen gela.

Ordura arte, liburuak  
edozein lekutan  
desordenaturik egoten  
ziren.



Behin, Anixiak amatxori  
zera entzun zion esaten:

“Ene, hainbeste liburuk jan  
egingo gaituzte azkenean!”.



